


GURE BALIOAK 2018 SARIA

9. EDIZIOA

Giza balioetan oinarritutako bizi-ibilbideari Saria | Debarrena

OINARRIAK



GURE BALIOAK SARIAREN 9. EDIZIOAREN OINARRIAK

DEBEGESAK, Debarreneko Garapen Agentziak, Gure Balioak Sariaren bederatzigarren edizioa abian jarri du; Debegesa da sariaren sustatzaile eta babeslea.


DEBEGESA, Debarrena eskualdeko 8 Udalek osatutako elkarte da: Eibar, Elgoibar, Deba, Mutriku, Sorluze, Mendaro, Ermua eta Mallabia.

Bere misioa eskualdearen garapen jasangarria bultzatzea da, giza baliabideak eta baliabide materialak erabiliz, balio erantsia gehituz eta modu proaktiboan.

Testuinguru honetan kokatzen da Gure Balioak. Egitasmo honen helburua da gizarte balioak sustatzea, horrek lagundu eta ahalbidetuko baitu Debarrena eskualdearen garapen jasangarria. Jasangarritasunaz ari garenean, ez gara ingurumen alderditik bakarrik hitz egiten ari, baita alderdi ekonomikotik eta sozialetik ere.

Proiektu honen ekimenetako bat gizarte balioak nabarmentzea edo goratzea da; pertsona edo erakunde baten bizibidea sarituz.

Sari honek azpimarratu eta sustatu nahi dituen oinarritzko balioak **integritatea, errespetua, ekintzailtza** eta **lankidetzaren elkarlana** dira.




Azken finean, eta sari honen filosofiarekin bat eginez, DEBEGESA garapen agentziak eskualdearentzako duen misioa betetzen lagunduko dien pertsona zein erakundeen ibilbideak aitortzea eta saritzea nahi du: lurraldearen garapen jasangarria sustatzea, hau da, aberastasuna sortzea giza-kohesio eta ingurumenarekiko errespetuarekin batera.

1. HELBURUAK

- Debarrenean gizarte balioak sustatzea; horien egoera eta beharrari buruz hausnarketa bultzatuz.
- Hiritarrak eta gizarte eragileak Debarrenaren garapen jasangarri eta lehiakor bat lortzeko funtsezko diren 4 balioen garrantziaz sentsibilizatzea.
- Debarreneko eskualdean pertsona edo entitate batek bere ibilbidean zehar sustatu dituen giza balioei aitortza egitea.

2. NORK AURKEZ DITZAKE HAUTAGAIK

- Debarreneko gizarte eragileek:
 - Herritarrek
 - Enpresek
 - Elkarrekin
 - Hezkuntza/heziketa zentroek
 - Ikerketa zentroek
 - Erakundeek



3. HAUTAGAIK BETE BEHARREKO BALDINTZAK


- Hautagaiak jasotzeko formularioa bete behar da, eremu guztiak, ahal den neurrian.
- Pertsonak zein erakundeek honako baldintzak bete behar dituzte:
 - Debarrenean jaioa izatea edo bere bizi / lan-ibilbidea bertan garatu izana.
 - Bere balioengatik aipatzekoa den jardunbidea izatea.
 - Eskualdearekin lotura sendoa izatea.
 - Bizirik egotea.

4. SARIA

Saria urtean behin banatuko da.

Sariari ondokoa esleituko zaio:

- Juan Luis Baroja Collet artistaren eskultura bat. Debarreneko entzute handiko artista da, bai nazioartean, bai estatu mailan. Artelan hau sari honetarako diseinatu eta burutu da bereziki, eta egileak sinaturiko eta legezaturiko serie mugatu baten parte da.




5. HAUTAGAIEN BALORAZIOA

Aurkeztutako hautagaiak baloratuko dituzten epaimahaikideak aurrerago kaleratuko dira.

Balorazio irizpideak hauek izango dira:

- Funtsezko 4 balioengatik nabarmentzen den jardunbidea:
 - Integritatea:
 - Etika/ Prestutasuna/ Zintzotasuna
 - Beste pertsonetikiko erantzukizun soziala
 - Duintasuna
 - Errespetua:
 - Tolerantzia/ Aniztasunaren onarpena
 - Enpatia
 - Gupida
 - Ekintzailetasuna:
 - Hobetzeko espirtua
 - Ausardia/Iniziatiba
 - Ziurgabetasun eta ezbeharraren onarpena
 - Espiritu kritikoa
 - Sormena
 - Talentua
 - Ilusioa/Umore ona/Positibismoa
 - Lankidetzeta-elkarlana:
 - Solidaritatea/ Eskuzabaltasuna
 - Konpromisoa/ Inplikazioa/ Parte hartzea
 - Elkarrizketa/ Negoziazioa



- Konfiantza
- Aukera berdintasuna
- Gizarte hobe baten aldeko utopia
- Errotzea / Bertakoa izatearen sentimendua

6. ENTREGATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- Hautagaien proposamenak jasotzeko formularioa beteta.

www.debegesa.eus web orrialdean online bete edo deskargatu egin daiteke.

7. HAUTAGAIK AURKEZTEKO EPEA ETA TOKIA

Debegesak hautagaiak jasotzeko ezarritako epea honakoa da:

2018ko uztailaren 15era arte.

Sariari dagokion dokumentazioa epostaz bidaliko da honako helbide elektronikora:

Eposta: balioak@debegesa.eus

T..: 943 82 01 10



Hautagai bat bidali nahi duen pertsona orok bere burua ezagutzera eman beharko du, antolatzaileei begira.

8. HAUTAGAI IRABAZLEA

Pertsona edota erakunde irabazleak saria jasotzera etortzerik ez balu, honek izendaturiko beste pertsona batek jaso ahal izango du.

Hautagai irabazleak sariari uko egingo balio, saria bigarren hautagai bozkatuenari emango litzaioke eta horrela, bosgarren hautagairaino. Hauetako inork ez baluke saria onartuko, saria hutsik geldituko litzateke.